



GIZA
ESKUBIDEEN
ALDARRIKAPEN
UNIBERTSALA

Duintasuna eta justizia guztiontzat

Euskadin Giza Eskubideen Aldarri-
kapenaren 60. urteurrena ospatzeko
kanpaina-proiektua

...eta ez balego?

2008ko apirilak 30



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos

Hitzaurrea

Iragan abenduaren 10ean izan zen Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna (2007), eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 60. urteurrena ospatzeko programari ekin zitzaien. 2008ko abenduaren 10a arte iraungo dute ospakizun-ekitaldiek, eta “Duintasuna eta justizia denontzat” izango dute leloa. Ban Ki-moon Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiaren ekimenez abiatu da kanpaina, eta Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Mandataria izango du gidari. NBEko sistema osoa jardungo da kanpainan, eta parte hartzeko gonbita egin zaie hainbat jende, talde, erakunde, elkarte eta gobernuri, Aldarrikapen Unibertsala ezagutarazi, babestu edo susta dezaten, edo haren premiaz ohartu.

Bat egin du deialdiarekin Eusko Jaurlaritzak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren bitartez, eta berariazko kanpaina egingo du EAEn 2008an. Nolanahi dela ere, ez da une jakin baterako ekimen hutsa, isolatua izango. Izan ere, Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planaren onespenezkin batera dator kanpaina. Proiektu handia da Plana; aldeaz aurretik administrazioek eta gizarte zibilak egindako ahaleginen emaitzak jasotzen ditu, planifikazio-tresna bakar baten inguruan biltzen eta koordinatzen ditu Giza Eskubideei buruz eskolan eta gizartean egiten den heziketaren sustapena eta haren eragile guztiak.

Hartara, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala ezagutarazteko nazioarteko mugimendu baten partaide izango da Eusko Jaurlaritza, gizon-emakumeon eskubideen aldeko konpromisoaren erreferentzia partekatu eta orokorra baita Aldarrikapena. Ezin egokiagoa dugu ospakizunaren eslogana: “Duintasuna eta justizia denontzat”. Gizaki guztiok berez dagokigun duintasuna babestea da, izan ere, bizikidetzaren oinarri nagusia; justizia, berriz, Aldarrikapenaren eta jarduera politiko guztiaren helburu, aplikazio, proiektu zehatz eta lehentasun dugu. Eta “denontzat” horrek, azkenik, gogorarazten digu ez duela salbuespenik eta bazterketarik egon behar, denontzat direla giza eskubideak, munduan bizi garen gizon-emakume guzti eta bakoitzarentzat, inongo bereizketarik gabe.

Euskadin egingo den kanpaina orokorra izango da, duintasunaren eta justiziaren aldeko nazioarteko sinergia batekin bat egitea baitu xede, baina, aldi berean, bertakoa ere bai, gure herrian ere bai baitago giza eskubiderik mehatxupean, urraturik... Hori dela eta, etengabe eduki behar izaten ditugu martxan prebentzio, heziketa, esku-hartze eta konpontze baliabide guztiak. Neurri horien eraginkortasun politikoa eta soziala areagotzea du helburu kanpainak, eta agerraraztea giza eskubideen (ongia) nagusitasun moralak haien aurkako zeinahi urraketaekin (gaizkia) alderatuta.

1. Euskadiko kanpainaren helburuak

Lau helburu ditu Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 60. urteurrena ospatzeko euskal kanpainak:

- a) Parte hartzea Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 60. urteurrena ospatzeko Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariak sustatutako mundukanpainan.
- b) Giza Eskubideen Aldarrikapena gizarte osoari ezagutarazteko kanpaina masiboa egitea, etxe bakoitzean, ikastetxe guztietako ikasmahai bakoitzean Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ale bana egon arte.
- c) Laguntzea herritar bakoitza ohartarazten Aldarrikapenaren garrantzi izugarriaz, eguneroko bizimoduan jarduteko gizateria osoarentzat eta gizaki bakoitzarentzat ekarri duen aurrerapauso historikoaz.
- d) Areagotzea euskal gizartearen giza eskubideekiko konpromisoa, batez ere gure inguruan urrakorren direnekikoa, baita munduko zeinahi bazterretan bidegabeke-ria-egoera larriak pairatzen dituztenekikoa ere.

2. Euskadiko kanpainaren eslogana

Eslogan hau izango du ardatz kanpainak:

...eta ez balego?

Lau galdera izango ditu osagarri eslogan nagusi horrek:

Ez balego, nolakoa ote mundua?
Zertan aldatuko ote luke nire bizitza?
Zer egin aintzat har dezaten?
Ongi ezagutzen ote dut?

Eslogan zentralaren xedea da jendeari halako hausnarketa- eta emozio-inpaktu bat eragitea galdera baten bidez, badaukagun baina agian behar adina estimatzen ez dugun garrantzizko zerbait galtzeak dakarren ezinegon hori sorrarazteko. Gizaki bakoitzaren barruan galdera hau entzunarazi nahi dugu: “Nola biziko ote ginateke ez balego”. Esloganaren helburua da Aldarrikapenak duen garrantzi izugarriaz ohartaraztea herritarrak.

Kanpainaren helburuak gogorarazten dizkigute lau galdera horiek. Lehenbiziko bien eginkizuna da hausnarketa eragitea Aldarrikapenak munduarentzat eta gizaki bakoitzarentzat izan duen –eta duen– garrantziaz eta eraginaz, eta aurre egitea Aldarrikapena berezko ondasuntzat hartzeko joerari. Hirugarren galderak, berriz, herritarrak ekintzara eta konpromisora bultzatzea du xede. Laugarrenak, azkenik, Aldarrikapena gogoratu eta haren edukia jakiteko nahia sustatzea du helburu. Laugarren galderari dagozkion testu eta ekintzetan, halako ‘pizgarri’ berezi bat tartekatuko dugu, galdera gisara. Hona hemen galdera: “Bazenekien Aldarrikapenaren idazlari nagusia euskal herritarra zela, Baionakoa?”

Galdera horien guztien erantzuna (geroago argitu beharrekoa, beti) hau dugu:

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala
60. urteurrena
Duintasuna eta justizia denontzat

3. Kanpainaren deskribapena

Hiru ardatz nagusi hauek izango ditu Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalari buruzko Euskadiko kanpainak: (1) dibulgazioa, (2) kontzientziazioa, eta (3) konpromisoa. Ardatz horietako bakoitzak zenbait ekimen bultzatuko ditu. Hasiera- eta amaiera-ekitaldi bana izango ditu kanpainak (4).

3.1. Lehen ardatza: dibulgazioa. Giza eskubideak ezagutzea

3.1.1. Arrazoibidea

Diagnostiko soziologiko hau dugu abiapuntu: sarritan aipatzen dira giza eskubideak, baina apenas du jendeak haien edukiaren eta esanahiaren berririk. Segur aski, oso jende gutxik irakurri du Aldarrikapena, oso jende gutxik dauka etxean haren alerik. Giza eskubideak sustatzeko lehen urratsa da Aldarrikapenaren edukia jakinaraztea. Hori da oinarritzko baldintza Aldarrikapena zer den jakiteko: gizaki guztioi, salbuespenik gabe, gure giza duintasunagatik dagozkigun eskubide unibertsalen katalogo bat. Horregatik, kanpaina honen lehen urratsa da Aldarrikapenaren hedapen masiboa egitea, etxe eta ikasmahai guztietara haren ale bana eramatea.

3.1.2. Ardatz honi dagozkion ekintzak

Ardatz honen helburuak betetzeko, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren argitaratze eta dibulgazio masiboa egingo da. Hiru formatutan argitaratuko dugu:

-Haurrentzako formatua: zazpi urtetik hamahirura bitarteko neska-mutikoentzat. Argitaratuko dugun liburuxkaren ale bana eskuratu behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztiek eta adin horietako ikasleek. Liburuxkarekin batera, irakasleentzako orri bat ere argitaratuko dugu, orientabide didaktikoekin.

-Gazteentzako formatua: 14 eta 20 urte bitartekoentzat. Adin-tarte horretako ikasle guztiek jaso behar dute Aldarrikapenaren ale bana beren institutu, LHko ikastetxe edo fakultateetan.

-Helduentzako formatua: familientzat argitaratuko dugu. Etxe bakoitzak Aldarrikapenaren ale bana jaso behar du.

Giza Eskubideei eta Bakeari buruzko Heziketa Elkarteen Foroarekin elkarlanean argitaratu eta banatuko ditugu liburuxkok.

3.2. Bigarren ardatza: kontzientziazioa, Aldarrikapenaren garrantziaz ohartzea

3.2.1. Arrazoibidea

Beste zenbait erreferentziarekin nahasturik dakusa gizarteak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, egoera jakin batzuetan aipatzea komeni den eta berebiziko garrantzirik ez duen erreferentzia gisara, beste balio batzuekin alderagarria, edo are apalagoa. Ez dirudi dagoenik kontzientzia argirik Aldarrikapenaren balio izugarri eta unibertsalaz; ez da ikusten gizateriaren historian eman den aurrerapauso garrantzitsuenetakotzat. Beharbada, gazteek berezko eskubidetzat dakusate Aldarrikapenak dioena, babestu eta sustatu beharrik ez dagoen zer higiezin gisara. Alabaina, gure mundu honetako egoerek erakutsi digute etengabe berri beharra dagoela giza eskubideen indarraldia eta garrantzia. Hausnarketa hori eragitea du xede bigarren ardatzak, hau da, giza eskubideek historian duten garrantziaz ohartaraztea gizarteak. Izan ere, Aldarrikapenean ageri direnak dira mundu osoan gizakiok aintzat hartu behar ditugun eskubideak. Aurrerapen handia izan zen Aldarrikapena. Horren garrantziaz ohartzeko, saiatu galdera hauei erantzuten: “Nolakoa ote litzateke gaur egungo mundua Aldarrikapenik gabe?” “Zertan aldatuko ote litzateke nire bizitza Aldarrikapenik ez balego?”

3.2.2. Ardatz honi dagozkion ekintzak

Gehienbat ikus-entzunezko baliabideak erabiliko ditugu kanpainaren ardatz honekin. Hiru ekimen bultzatuko ditugu:

-Zenbait publizitate-spot sortu eta argitaratuko ditugu, hiru hilabetez.

-Giza eskubideei buruzko film baten gidoirako ideia-lehiaketa bikoitza egingo dugu:

—Lehenbiziko ekimena 12-16 urte bitarteko neska-mutikoentzat izango da. Izenburua: “Zer iritzi duzu giza eskubideei buruz?” eta Betizuk eskaintzen duen euskarri anitzeko plataformaren bidez garatuko litzateke.

—Bigarrena, berriz, 60 urtetik gorakoentzat izango da. Gaia: “60 urte eta gero, nolakoa litzateke mundua eta gure bizimodua Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalik gabe?”.

-Dokumental bat egingo dugu lehiaketa irabazten duten ideiak oinarri hartuta, gazteentzat eta jende helduarentzat. 2008ko abenduaren 10ean estreinatuko da, okerrik ezear, dokumentala, Aldarrikapenaren 60. urteurren-egunean alegia.

Ardatz hau garatzeko, hitzarmena sinatuko dugu elkarrekin Giza Eskubideen Zuzendaritzak, EITBK, Betizuk eta proiektuak esleitzen zaizkien ekoiztetxeek.

3.3. Hirugarren ardatza: konpromisoa, eta haren urrakortasuna

3.3.1. Arrazoibidea

Munduko estatu ia guztiek onartua dute Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, eta beren legedietan jaso. Alabaina, horrek ez du bermatzen eskubideak aintzat hartzea. Zalantzarik gabe, Aldarrikapenaren onepena aurrerapauso historiko izugarria izan da, ezinbestekoa, nahitaezko baldintza, baina ez da aski. Mundu osoan urratzen dira, gaur egun ere, giza eskubideak, eta bidegabekeriak bidelagun ahaltsuak ditu nonahi. Ahulak dira gizabanakoon giza eskubideak, eta etengabe daude urratzeko arriskupean, bidegabekeria, desoreka edo desberdintasunik dagoen zeinahi lekutan. Aldarrikapena onartu eta berretsia delarik jada, hura aintzat harraraztea dugu lehentasuna. Horixe du desafio etikorik nagusiena gizateriak gaur egun: ohartzea giza eskubideak aintzat hartzea dela gizakiaren proiektu etikorik gorena. Konpromisoa eskatzen dute, ordea, giza eskubideek. Horixe du helburu, hain justu ere, hirugarren ardatz honek: giza eskubideen aldeko euskal herritarren konpromisoa (pertsonala eta kolektiboa) berretsi eta sendotzea, bai mundu osoari, bai gure herriari dagokienez.

3.3.2. Ardatz honi dagozkion ekintzak

Ekimen bakarra du ardatz honek, eta ekitaldi bakar batean gauzatuko da, baina sei hilabeteko prestakuntza-prozesua eta gero:

-Maiatzaren 15etik urriaren 11ra bitartean, Aldarrikapen Unibertsalaren aldeko agiri bati atxikitzeko prozesua izango da martxan. "Euskal konpromisoa giza eskubideen alde" izango du goiburu agiriak. Era guztietako erakunde, alderdi, sindikatu, eskola eta eragile sozialek izango dute agiriarekin bat egiteko aukera. Urriaren 11n amaituko da kanpaina (60. urteurreneko ospakizuna baino 60 egun lehenago), Arantzazun egingo den ekitaldi solemnearekin. Hara gonbidatuko ditugu agiriaren sinatzaile guztiak eta herritarrak, oro har. Urriaren 11tik abenduaren 10era arte, berriz, agiriarekiko atxikimendu pertsonalak bilduko ditugu. Web orri bat ere sortuko dugu, kanpainaren lagungarri.

Zenbait jende ezaguni (kolore askotarikoa) eskatuko zaio agiria idatzi eta aurkezteko.

3.4. Kanpainaren hasiera eta amaiera

3.4.1. Hasiera

Apirilaren 30ean, asteazkena, hasiko da kanpaina, Lehendakartzaren egoitzan egingo den ekitaldi batekin. Prentsa eta giza eskubideekin lotutako erakunde, elkarte eta organismoetako 50 bat lagun gonbidatuko ditugu ekitaldira. Giza Eskubideen zuzendariak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuak eta Lehendakariak hitz egingo dute.

3.4.2. Amaiera

Kanpainaren amaiera, berriz, Euskalduna Jauregian (Bilbo) izango da, abenduaren 10ean. Ekitaldi horretan estreinatuko da dokumentala, eta erakundeetako ordezkariak kanpainaren ondorioak aurkeztuko dituzte. Amaierako hitzaldia egingo da ondoren. Ekitaldirako gonbidapenak bidaliko zaizkie gizarteko eragileei (250 bat lagunentzat).

4. Kanpainaren egutegia

Egutegi honen arabera egingo da Euskadin Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 60. urteurrenaren ospakizun-kanpaina:

Apirilak 30	Kanpainaren hasierako ekitaldia.
Apirilaren 30etik ekainaren 30era	Gidoiak idazteko ideia-lehiaketa.
Maiatzak 15	“Euskal konpromisoa giza eskubideen alde” agiriaren eta web orriaren aurkezpena.
Maiatzaren 15etik urriaren 10era	Agiriaren aldeko atxikimendu-bilketa.
Ekainak 13	Postontziz postontzi banatuko da Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren liburuxka (helduentzako).
Iraila-urria-azaroa	Publizitate-spotak hedabideetan.
Urriak 1	Ikastetxe guztietara banatuko da Aldarrikapena (haur eta gazteentzako formatuak).
Urriak 11	“Euskal konpromisoa giza eskubideen alde” agiriaren aurkezpen-ekitaldia, Arantzazun.
Abenduak 10	Kanpainaren amaiera: dokumentalaren aurkezpena.